

INTELIGENTSIA KIMATUAREN ORBELAK

Paulo Iztueta Armendariz
Kutxa Gizarte eta Kultur Fundazioa, Donostia, 1996

Euskarazko Inteligentzia Propioaren gibeletik mugitzen da autorea obran zehar.

Intentzioa berriz zehaztuta uzten da, Sarrera berean, «mundu berriak aurkitzera baino gehiago, jadanik gu-txi-asko aurkituak berrikustera nator... Soziologiaren ikuspegitik alegia» (7. or.), dioenean. Areago joango da murgilketa honetan lehen atalean dioelarik, «euskararen gora-beheak ikertze-ra hurbildu diren ia gehienek hizkuntzalaritzaren eta literaturaren ikuspegitik egin izan dute... Soziolinguistikan eta Hizkuntzaren Soziologian nekezago doaz euskararen gizarte-osasunari buruzko ikerketak» (13. or.). Baina, zertan legoke autoreak helburutzat aipatzen duen behar gorri hori? «Euskal kulturaren bilakabide historikoari bere tes-tuingurua ezartzea eta horren barruan euskarazko produkzioa neurtzean» (13. or.) erantzungo zaigu.

1.

Baina, hau guztia ez da hain sin-plea. Nik neuk, hemen eskuartean dugun lan hau baino laburrago bat, hots, "Algunos rasgos esenciales de la historia cultural euskaldun" deitu atala, (jatorrian euskaraz idatzia nahiz oraingoz erdaretan bakarrik argitaratua izan den) *Euskadi gudian* liburua-arentzat, 1987an produzitu nuenean, edukitako arazo berak ikusi bide ditut Pauloren kezka hauetan. Euskal kultu-ra aboratzean, larreak eta soroak be-zala langatu beharra etengabekoa dela

dirudi. Honen lekuko, lehenik eta behin, kultura bera, arte plastiko, musika, oro-tako produkzio material edo hizkuntza-idazkera arloetan bereizketa dator, arazo desberdinak baitaude. Hala ere, idazkera tartekako ez daramaten kultur espresioak ez dira eztabaidatzen, hots, lurraldetasunez Euskal Herriko den oro, arlo horietan egina, *euskal* kontsi-deratzen da. Baina, idazkerarekin topo egin bezain pronto, bigarrenengo bereiz-keta-saila dator segidan: «Neurketara-ko zein irizpideri jarraitu diodan ere azaldu beharrean nago. Bi izan dira nagusiki: a) euskaraz egina izatea, eta b) sorkuntza-lana izatea» (15. or.). Zer esan nahi du? Euskara erreferente erro duen euskal kultura bere erroan eritasunak jota dagoela. Zeren, nori okurritu zaio ondoko deklarazio-mota egitea: «Yo hago cultura castellana en inglés». Nik dakidanez inori ere ez. Baina, aldiz, egina izan da beste hau: «Yo hago cultura vasca en castellano». Arazoa ukaezinezkoa da. Ondorioz no-la izendatu behar dugu erdaretan ere ari garen euskaldunon produkzioa? Bi-garrenik, autoreak esaten digun bezala honen guztiaren adierazpen politikora igarotzen gara berehala: «Gauzak ho-rrela izanda, baldin eta multikultura-lismoa ukaezinezko gizarte-egitate orokorra badin bada... kultura zer den... jakin beharko da. Eta honek badu garrantzirik, kultur aniztasunaren praxia elementu axiologikoz eta interes sozio-politikoz osaturik baitago. Kultu-ra desberdin bakoitzari dagokion ba-lia baiezta eta hortik errebindikazio

jakinak egiten direnean, orduan hasten dira, hain zuzen, etnozentrismoaren nahiz kultur erlatibismoaren kontrako susmoak eta salakuntzak» (18. or.). Paulok ez du zalantzarik kultura etnikoa eta kultura utilitarista uztartzeaz: «Guk euskal kultura darabilgunean, kultura eraginkorra, modernoa, egunean eguneko behar guztietara moldatzeko gauza dena bilatzen dugu, hezkuntza akademikoak eskain dezakeen eduki utilitarista duena, baina horregatik kultur tradizioari ukorik egin gabe, euskal kulturaren berezitasuna osatzen duten elementuak ahaztu gabe» (32. or.) Arrazoi osoa du, noski!

2.

Errealitate etnikoak konstatatzea ez da arrazakeria. Gizon-emazteen egoera indibidual zein soziala oinarritzeko eta justifikatzeko elementu etnikoak iherarkizatzen eta gonbaratzen hasten garenean, eta orduan bakarrik, eror gintezke arrazakerian. Pasarte sendoetan autoreak dioena laburbilduaz ondoko baieztapen hauek egiten dira gaien.

1) Arraza huts-garbia mito bat da. Hala ere, «giza komunitate jakin bati espezifikotasunez dagozkion ezaugarri etniko batzuk geratzen dira» (99. or.)

2) Arrazak bezala hizkuntzak enbor bakarretik datoz. Hala ere, soziologikoki hizkuntzen arteko desberdintasunik egon badagoela konstatatzeko ez dago ezpairik. Eztabaida, noiz, nola eta zeri atxikiak gertatu diren jakitean datza. Honela, aspalditik datorren tesia da, hizkuntza primitiboan izaera osoki konkretua zela eta abstrakzioarako gaitasuna hizkuntza modernoari bakarrik dagokiela. Autoreak borobil dio, ordea, «egun aho batez onartuta dagoela egungo hizkuntza guztiek erakusten dutela abstrakzio-maila handia... zailtasunak egotekotan estralinguistiko

hutsak dira, larrienak, hizkuntz politika zentralistak eragindakoak» (95. or.).

3) Euskal Herria «ez da azken orduko historia modernoak ekarritako sorkari politiko bat, estatu babesean hazi eta indartu diren sustrai etnikorik gabeko nazio horietako bat, Europa zibilizatuan bere nazio-proiektua azken burura eramanez nahi duen herri aspergaitz bat baizik» (100. or.).

Berrogeita hamar orrialdeko atal hau euskal gazteriak euskal historiaurrean sarrera egiteko hautazkoa luke.

3.

XII. mendearen bukaera arte dugun Euskal Herriari buruzko informazio historikoaren eskastasuna salatzen da. Nafarroa Garaia bere lurralde zelaitsetan, lur ustiagarriez osatua, goiztar hiritartua eta plurikulturizatua gertatu zen, hots, «euskara, erromantze, hebraiera eta arabierarekin nahaste biziko da» (102. or.).

Itsas-merkataritzak eta industriak XIII. mendetik aurrera Gizpuzkoa eta Bizkaiaren hiritartzerako abiadan jarriko ditu.

Eta feudalismoaz zer? Ontzat ematen da sistema feudal arrunta izan zela Euskal Herrian diotenen tesia. Ez nator bat. Izan ere, ez da aski lur lauetako ekonomia-sistema, nekazaritza eta abelazkuntzan oinarritua batetik, eta burgesen hiriak, produkzio-modu aurrekapitalistan zutituak bestetik, kontrajarriaz Euskal Herria deskribatzea. Hirugarren Euskal Herria ekonomiko bat ere badago, eta lurraldez oso garrantzitsua, mendi-lurretan artzain-laborari txiroez eraikia, hain zuzen. Hau sistema feudalak ez zuen zulatu. Eta hain zuzen bertan iraun zuen arbasoen hizkuntz kultura originalak.

Ados nator X. mendetik aurrera bakarrik instituzionalizatzen hasten dela euskal kristau eliza adieraztearekin. Lorpenak berriz nekez emango dira. Ados nator ere Nafarroako Erresuma aipatzeaz Euskal Herriko lehen instituzionalizazio sozietal gisa, hots, ez komunitario gisa. Hala ere, Europako mendebaldeko kulturaren aro latinoan geundenez, absurdoa da bertan hizkuntza- eta kultur-politika propio bat atzeman nahia; hori, Estatu-nazio proiektuarekin sortuko baita Europako mendebalde osoarentzat.

4.

Idatzitako euskal testuen agerpena dugu hizpide orain. Zenbait puntu eztabaidagarri aipatuko dugu atal honetan. Lehena, bertsolaritzaren lekuko diren testu zaharren ingurukoa da. Oso eztabaida "kuriosoa" gertatu zait emazteki koplariak aipatzen dituenak. «Bi motako emazteki koplariak zeuden, batetik jauntxoek hiletetan kantatzen zuten dama aristokratikoak eta, bestetik, herriz-herriz ibili ohi ziren fama txarrekoak» (136. or.). Oraindainokoa hor nonbait, nahiz "fama txarrekoen" nondik norakoaz jakin minarekin gelditu. Ondotik esanekin, ordea, desadostasuna erakutsi nahi dut arrazonamendu-eragatik. Hau baitio, alegia: «Nahiz ukazina izan emazteki koplari horien lekukotza historikoa, bada pentsatzen duenik horien koplagentza ez dela inprobisatua» (136. or.). Eta orrialde bereko oin-ohar batean hau eransten da: «X. Amuritzak ez dauzka emazteki hauek bertsolaritzat, kontzeptu honen muina bat-batekotasuna den heinean» (136. or. 29 nota). Irizpide bat izan liteke bertsolaritza atributua norbaiti eskaintzeko orduan. Ez dut uste bertsolaritzaren atributurik esentzialena hori denik baina horretaraino hel gintezke gaia razionalizatzeko saioan. Hori horrela ezartzen bada, harrizten nauena

zera da, X. Amurizaren ahotan ondoko esaldi hau beranduxeago aurkiturik ere Paulok inolako harridurarik gabe bera onartzea: «Xenpelar adibidez bertso jarrietatik ezagutzen dugu batez ere, nola inprobisatzen zuen apenas baitakigu» (182. or.). Areago, hau bera konfirmatzen digun Jon Sarasuaren esaldi bat dakarrelarik, «eredu eta mitozat ditugun bertsolari handi askok bat-batean nola egiten zuten ere ez dakigu ia». Esaldi hauek egia badira, batetik, Paulok ezin zezakeen ontzat eman ematen duena, hots, «Xabier Amurizarekin batera esan dezakegu, beraz, "Benat Mardo Barkoxekoa dela ezagutzen dugun bertsolaririk zaharrena» (178. or.), ez baitugu bere bertsoen inprobisazioaz inolako lekukotasunik. Bestetik, X. Amurizak ez lituzke Benat Mardo, Xenpelar bera eta abar ere bertsolaritzat eman beharko, ezarri duen irizpidea aplikatzen badu. Ala eta irizpide hori ez da bertsolaritza ororentzat erabakigarria? Hala bada ezin diezaieke emazteki koplalariei baizik aplikatu. Hutsegite hau 1996ko ISBNarekin 1997an Egin liburuen sailean X. Amurizak argitaratu berri duen *Bertsolaritzaren historia*-n inkoherentzia lotsagarri errepikatzen da, azken obra honetan, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako kanta anonimoentzat bertsolaritza izendapena onartzen baitu. Kanta horien autorerik ere ezagutzen ez badugu nondik ateratzen zaigu inprobisatuak izan zirenik? Eta inprobisatuak izan ez baziren, zergatik hauek bai bertsolaritzan sartzen dira? Are Bernat Etxepare poeta zergatik oraingoan bertsolari egin digu?

Bigarrena, Zuberoako pastoralari buruzko oharra da. «J.Casenave, J.L. Davant eta, ditugu pastoralaren tradizioari mendu berria ezarri eta etorkizuna ziurtatu diotenak. Berrikuntzatik dator, etorri, iraupena» (191. or.) esaten

zaigu. Gaur oraino bizi diren pastoralgile berrien artean aipatu beharko zituen baita ere, A. Agergarai, R. Idiart, J.M. Bedaxagar eta P.P. Bertzaitz, hasteko. Eta ondotik berritzaileagoak eta tradizionalagoak nor diren eztabaida genezake. Nire iritzi pertsonala da guztien gainera J.M. Bedaxagar eta P.P. Bertzaitz direla pastoralaren tradizioari mezu berria ekarri diotenak, antzerkia, kantua eta dantza irizpide berriekin sartu baitituzte.

Hirugarrena, ipuin-sailari loturiko azpimarratzekoak lirarteke. Biltzaile lanetan ihardun dutenen zerrenda aipatzen da P. Lafitten lan bati jarraiki. Ongi da baina gaur egun osatu beharrekoa dugu. Besteak beste, Joxe Arratibel ipuin-biltzaileen izen-zerrenda horretan sartzekoa litzateke. Beste hainbat esan behar da ipuin-bildumei buruzko azterketentzat. Gaur egun ezinbestekoa da Joxe Martin Apalategiren *Introducción a la historia oral, Kontuzaharrak (Cuentos Viejos)* aipatzea. Sailean egin den lanik sendoena eta egunekoena dugu, noski. Bestalde, topikoa deritzot R.M. Azkuerentzat esaten dena: «Bere bildumak aberastean, akats metodologiko nabaria du, eta da, ahozko kontatera transkribatzeko orduan, ortografiatzeko arauetara eraldatzen duela. Begi arauemailea nagusitzen zaio belarriari, betiere fonetikaren kaltetan» (195. or.). Hau guztia biltzaile lanetan ihardun den ororentzat esan liteke. Fonetika hutsa behin ere ez da irizpide izan.

5.

Foruen pentsakera nagusi zeneko literatugintzari buruzko testuak ohar zenbait sortarazi digu. Hasteko, ez zait gogoko Foruak eta Fueroak bereiziz egiten den sistema errepresentazioa. Askozaz ere nahiago dut, F. Zavalaren “Fueros generales” eta “Fueros muni-

cipales” bereizkuntza. Aldiz egokia iruditzen zait autoreak insista dezan 1526ko “kaperatasunaren” tituluan. Garrantzizko baita modernitateari so «herritar izate soilak zekarren aitonen seme izateko eskubidea, ez odolak» (202. or.). Era berean, arrazoi osoz gogorarazten zaigu «hitzarmena zela boterea erakundetzen zuena, errege-boterea baino lehenagokoa dena» (203. or.). Nola lehen puntua hala bigarrena, gaur oraino dauzkagun gatazka-arazoak gainditzekoan irizpide funtsezko dira.

Hala ere, euskal Foru sistema «bahitua eta baldintzatua» izan zenez gero, «euskal gizartearen egituraketa sozio-politikoaren foru-zuzenbidearen arabera gauzatu zen» (202. or.). Hegoaldeko lau herrialde historikoentzat esaten zaigunean ez da euskal errealitate oro errespetatzen, berdin izan zela esan behar baitugu Iparraldeko hiru herrialde historikoentzat. Ez dezagun ahantz Euskal Herriaren dimentsioa! Maite Lafourcadek eta Manex Goieneztekin egin tesiak gogoratzea egokia eta zuzena gertatuko zen atal hau burutzeari.

Liberalismoak Euskal Herrian bi-deak nola irekitzen dituen adierazgarria da baita ere. Ez da konkurrentzia liburuan nagusitzen delako. Errege-estatuak, administrazioa dela medio, pentsamentu antiforala sustatuko du. Nola? «Euskal lurraldeei ez zaie uzten beren produktu kolonialak Penintsulan sartzeko; edo sartzekotan, lehendabizi Espainiako produktuak Euskal Herrian zergarik gabe pasatzen utzi beharko da. Neurri baldintzatua zen. Beraz, koloni herrialdeetatik zetozen produktuak Gaztelara eramanez nahi badira, aldi berean Gaztelatik zetozen produktuei zergak kendu egin behar zaizkie. Hori zen errege-politikak eskatzen zuena.

Bestalde, eta hau zen ekonomi arazoaren bigarren aurpegia, 1789an Euskal Herritik Gaztelara zihoazen produktuei hain zerga handia ezarri zitzaizen, ezen handik aurrera euskal merkataritza bide berriak ireki beharrean aurkitu zen» (208-209. or.). Liberalismoa estatuen menpean jardungo da hogeigarren mendearen azken laurdenean multinazionaletan eratuaz estatuei gain hartu dioen bitartean.

Itsas merkataritza eta burdinolen hedatzearekin Euskal Herriaren kostamendietako ordura arteko demografi eta ekonomi egoera erabat aldatuko dira. Demografikoki bezala ekonomikoki nagusi zen Nafarroak geldirik iraungo duenean Gipuzkoa eta Bizkaia lasterkada bizian abiatuko dira. Berehala emigrazio beharrak eragindako arazoak agertuko dira XVI-XVIII. mendeetan. Hazkunde-fenomeno berak, aldiz, inmigratio-arazoak sortuko ditu XIX-XX. mendeetan.

Burgesia merkataria eta industrialia jabetuko den euskal lurraldean «hiritar burgesa, edo jauntxo (noblea), gizarte-klase zuzendaria, elebiduna da; herritar soila, aldiz, elebakarra. Puntu hau ezingo da ahaztu ondoko ibilaldi guzian» (224. or.). Bestalde, eskolaren hedapen-mugimendua, Euskal Herrian, Ahaide Nagusien gizarte-boterearen gainbeherarekin eta, kontrakarrean etorri zen. Ilustrazioa sartu zen puntuan azken berrehun urteetako euskararen etorkizuna erabaki zela garbi dago gaur historiaren ikuspegitik so. «Hiriburuetan nahiz hiribilduetan, XVI-XVII. mendeetan, doktrina eta latinaren erabilera alde batera utzita, gaztelaniaz eta frantsesez bideratu izan ditu Euskal Herriak goi-mailako zereginak oro» (227. or.). Protestantismoa jabetu izan balitz Euskal lurralde orotan beharbada besterik ikusiko genukeen.

Zeharkako bere eraginak izan baitira Elizatik euskarari etorritako apurrak: «Trentoko kontzilioaren ondotik eta herri-mintzairak aintzakotzat hartzen zituen protestantismoaren eraginez, gotzainek katekesia eta sermoiak euskaldunei euskaraz egiteko agindua eman zuten» (228. or.).

“Euskararen egoera diglosikoa” deitu atalean, itzulpen errore bat zuzentzen dugu. Aipatzen den R.C.ren frantses testuan (251. or.) ez da esaten, Baionan sekula euskararik ez zela egin, bere garaian ez zela egiten baizik, nahiz eta handik legoa erdi batera frantsesik ez konprenitu jendeak. Baina, hau guztia etsajeratu xamarra da. Horregatik, nahiz horrela idatzirik guregana heldu, ez zaio ez duen baliotasunik eman behar, esatean izan ezik idaztean ere etsajerazioak ematen baitira. Eta esate etsajeratuari konturatu orduko baliotasuna kentzen badiogu berdin egin behar diogu idatziari.

Latinak okupatutako lurretan erromantzeak sortuko dira. Euskararen lurraldean ez da salbuespenik emango: «Azken batean, hain gutxi aipatzen den erromatar inperio hark euskal lurraldean ezarritako kultur eta hizkuntzaren ondorioak nozitzen ari gara» (256. or.). Gaztelako Kortearen menpean sartuko delarik, Hego Euskal Herria hizkuntz estatus batekin aurkituko da: «Eginik zegoen hizkuntz hierarkiazioa, berezkoa zirudiena: latina hizkuntza filosofikoa eta sakratua zen, gaztelania literarioa eta politikoa, eta euskara lagunartekoa eta familiakoa» (259. or.).

Atal honen buruan liburu-produkzioaren gaiari heltzen zaio, esanez, «hizkuntza baten gizarte-osasuna adierazteko, Hizkuntzaren Soziologian bizitasun-mailaren kontzeptua erabiltzen da, hizkuntz boterea ere deitzen

zaiona... hizkuntza baten bizitasun-maila neurtzeko aldaki bat baino gehiago dira. Guk, hemen, liburugintzarena hautatu dugu» (264-265. orr.). Garrantzi hori eman nahi diogu liburugintzari baina etsajeratua iruditzen zaigu. Zeren XVI. mendearen aurreko euskal kultura nola neurtuko genuke irizpide horrekin? Hala ere, ezin ukatuzkoa da gizartean bizitasun-mailarik bazuela mende haietan euskarak. Idatzia garrantziko bihurtuko da inprentaz hizkuntzak apropiatzean. Eta gureak idatzia izango ez dueno besteen aldean gibelera egingo du. Hala ere, idatzia bezain garrantzikoa izango dira modernitateak sortuko dituen gainerako kultur adierazpenak besteekin lehiatu beharrez datorkigun desafioari aurre egiteko. Horiei, ordea, ez zaie aski toki ematen lanean zehar. Hemendik aurrerakoa euskal literaturen historia sinpleki egitera mugatzen dela iruditzen zaigu. Zergatik ez saiatu haren historiografia egiten, adibidez?

6.

Zergatik deitzen zaio 1876-1975 epealdiari hizkuntz asimilazioaren tunel luzea?

Horrek esan nahi ote du aurrekoak eta ondokoak ez direla horrela? Atalean intentzio politikoa nabari da. Hego Euskal Herriaren gainetik dagoen estatu-nazioa, proiektu nazional gisa funtzionatzen hasten da, noski. Baina hori bera esan zitekeen 1789az gero Ipar Euskal Herriarentzat, frantses estatu-nazioa izango baita eredia egingo duena jokabide horretan. Paulok justifikatzeko ondoko hau gogorazten du: «Foru-erregimenez osaturik egon ziren herri historikoak oro homogenotu eta juridikoki berdinduz geroztik hasi zen egituratzen» (301. or.).

Kuriosoa da ere nola kausa berak ez dituen efektu berak sortu Ipar eta Hego Euskal Herrian bere garaian. Alegia, Ipar Euskal Herrian foru-erregimena kentzeak ez zuen euskal nazionalismorik eragin, eta aldiz, Hego Euskal Herrian nazionalismoaren sorrera esplikatu nahi dugularik arrazoi hori funtsezkotzat ematen dugu. Honek beste behin ere garbi erakusten digu kausa bera inguratzen duten baldintzak sustatu ala itzali egin dezaketela. Hego Euskal Herrian modernitate Historia bat dago, beste Demografia bat, beste Ekonomia bat, etabar.

Beste azpimarratze bat ere egin nahi nuke. Paulok esaten digu: «Estatu nazionalismo zentralistari nazionalitate periferikoetan deszentralizazio-kimua izerditsiak sortzen zaizkio, subiranotasun eskabide-eskaileran, mota askotakoak direnak: erregionalistak, autonomistak, independentistak» (301. or.). Foru-erregimenean zegoen subiranotasun eskabide-eskailera bera da, foralisten artean ere, erregionalistak, autonomistak eta independentistak baitzeuden. Hemendik euskal kultur sustapenarekiko ezin kontrajarriak gertatzea foralismoa eta nazionalismoa. Zenbait foralismo bai, baina, baita ere zenbait nazionalismo euskal kulturaren kontrakoak gertatu baitira.

Sarrera politiko hau konklusio batez ixten da: «Estatu espainolaren nazio-batasuna gauzaturik eta sendoturik geratzen dela» (302. or.) adieraziaz, alegia. Ez da horrela! Hain zuzen hori da Espainia deitu proiektu nazionalaren drama. Behin ere ez dela nazionalitateen buruetan onartu. Horrek etengabeko arma-jokoa ekarri du, jarraitzen dieten ondorioekin. Espainiak 1898an kolonietan jasotako porrotak, Estatu-

-nazioaren proiektudunak penintsulako lurraldeetan segregazionismoa ereitera eramango ditu, eta erantzunez Euskal Herrian, Katalunian eta Galizian sezesionismoarekin aurkituko dira.

7.

Hizkuntzaren normalkuntzaren epealdia deitzen zaio 1976tik gaurdainokoari. Hobe horrela izan balitz! Normalkuntzaren oinarrian Gizarte-Hitzarmena legoke. Baina, hori ez da oraingoz Euskal Herriarentzat onartu. «Frankismotik monarkia oligokratikorako zubia frankisten eta demokraten arteko adostasuna lortuz egiten da» (378. or.) esaten zaigu. Baina, ez zaigu esaten zubi hori irekitzeko zenbat demokrata segregatzen jarraitzen den. Gure Hizkuntzaren normalkuntzak demokrata guztien normalkuntzaren kariatara bakarrik egingo du bidea ala eta gatazkan jarraituko du. Kooperazio-

-egoera bat gauzatzen ez den artean normalkuntzari irekiriko bidea itxita gerta daiteke. Euskal hizkuntzarekin gizarteko zenbait alorretan lan berezi bat daramagunok jada sentitzen dugu noizbehinka arazo hori.

8.

Azken ataltxo gaurko idatziaren errealitateari buruzko zenbakiek eta iritziak osatzen dute. Aurrez esan dudanez euskal produkzio idatziari gehiegi lotzen da nire ustez. Beste euskal kultur sail batzuek ere mereziko zuten hainbat aipamen. Baina autoreak erraza du honi erantzuten eta arrazoi osoz.

Liburua aberatsa eta ezin ahantzizkoa da. Aipamen honen irakurleari nire arrazonamendu-prozesuaren argitan gomendatzen diot.

Jokin Apalategi